

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/3/4 | 339

- |   |  |
|---|--|
| 🌀 | Hara, zergatik ez euskaraz? (VII eta azkena) |
| 🌀 | Emakumezkoen xakea badela erakusten          |
| 🌀 | Mixed Media Tolosan                          |
| 🌀 | Ipuin izugarriak, Askoren artean             |



Performancea:  
Emakumeek  
erabilitako arte  
adiera **∟**pena

# IÑAUTERIAK

2011



Elbarrena industrialdea 72-1 -  
Telf: 943 888232 - Zaldibia


[jaiak@jaiakdenda.com](mailto:jaiak@jaiakdenda.com) - [www.jaiakdenda.com](http://www.jaiakdenda.com)

## PLAN RENOVE LEIHOETAN



- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC - EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39



aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)



graduazio  
guztientzat  
armazoiak + kristalak

77€

Ekimazteko hiru hainagartze denegi da 2011/10/31ra arte. Kontuak izenarekin, karguak eta erabakiak. Errogi da gurekin beste promozio batzuk.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxa: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxexipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
 Banatzaileak: Olatz Garmendia  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Nora Olano  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOIKK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA  
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:

Performancea: Emakumeek erabilitako arte adierazpena

Aurrez Aurre jardunaldien testuinguruan Maite Garbayok, Josebe Iturriotzek eta Santi Erasok performancea mintzagai izan dute. Maite Garbayok 'Performancea eta Feminismoa', Josebe Iturriotzek 'Performancea, Generoa eta Trabestismoa' eta Santi Erasok ordea 'Inauterietako erri-tu performatiboak' landu dituzte.

8-11. orrialdeak

Jokin Ansorenak (Donostia, 1963) hogeita bat urte egin ditu Tolosako Udalean kultur teknikari. Urtebeteko etenaldia eszedentzia bat tarteko, aurretik erabakita ez izan arren, nobela bat idatzi ahal izan zuen.

Elkarrizketa: Jokin Ansorena

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Inma Eceizabarrena eta Jose Agustin Arrieta	4-5
	Normalizazioa: Hara, zergatik ez euskaraz? (VII eta azkena) Zine Aretoak	6-7
	Eskualdeko albisteak: Emakumezkoen xakea badela erakusten	12-13
	Kultura: Mixed Media Tolosan	18-19
	Irakurlearen begietatik: Ipuin izugarriak, Askoren artean	17

## Ama Kandida, konpromezuko emakumea



Inma Eceizabarrena  
FI

4

Ama Candida izenez ezagutzen duguna, Jesusen Alaben edo «Jesuitinen» sortzailea da, XIX. mendean hezkuntzak zituen hutsune sakonak betetzeko sortu ziren emakumezko kongregazio erlijiosoetako bat. XIX. mendean pedagogiaren alorrean egindako ekarpenaz luze eta zabal hitz egin genezake: emakumezkoari irakaskuntzan sartzen erraztu zion, maila sozial ezberdinekoak berdindu zituen ikasgela berean sartuta, baliabiderik gabeko familietako gazteentzat beka sistema ezarri zuen, astean lanean zebiltzan emakumeentzat igandeko eskolak ireki zituen,...

Baina mende hartako erlijio ordenetako sortzaileen artean, Ama Kandidak badu berezitasunik: 18 urte bete arte, euskaldun elebarkarra zen; eta are gehiago, 24 urterekin, hezkuntzari ekingo zion kongregazioa Jainkoarengandik sortzeko deia jaso zuenean, idazten eta irakurtzen ez zekien oraindik!

Eskolatzeko aukera mugatua zen garaian, emakumeen %20ak zuen ikasteko aukera. Ama Kandidak 1871n lehen eskola altxa zuen, 1888an berriz Tolosan oraingo San Frantzisko 12ko Hirukide; eta nola da posible alfabetatu gabeko bati horrelako zeregina otutzea? Nolako aurpegiera izango zuen Miguel San Jose Herranz jesuitak, neskak zituen asmoak azaldu zizkionean? Zer pentsatuko genuke guk, gidatzeko baimena ez duen norbaitek "1 Formulana" ibili nahi duela esango baligu?... Horregatik, haren aholkulariak, Jainkoak esku artean ezarri zion "harri bitxia" ezagututa, ez zuen ameslaritzat jo gaztea.

Ama Kandidak kristautasunetik jaso zuen apaltasun eta konfiantzatik, erokeria zirudien proiektu hura abiatu zuen. Bere bizitzaren lehen urteak, aitona-amonengandik jasotako behartsuekiko gertutasuna eta konpromisozko erlijioa eta gurasoengandik

jasotako bizitzari aurre egiteko adorea oinarri sendoa izan ziren bere planak aurrera eramateko.

Bukatzeko, martxoaren 8a aitzaki, hausnarketa txiki bat egin nahiko nuke: Ama maitea! Benetan sinesten dut gure kultura postmodernoaren zorigaitz nagusietako bat, gure bizitzaren baloreak errotu ahal izateko sustrai, ohitura eta eredu azalekoak ditugula. Halere, beste guztiok baino urrutirago iristea lortzen duen norbait ezagutzen dugunean argi gelditzen zaigu bere sekretua zertan datzan: pertsonaren euskarri, barnean dituen zain errotoa eta enbor malguak dira.

Horregatik du horrenbesteko garrantzia gu guztiontzat, gure arteko emakumea Europan, Karibean, Kolonbian, Venezuelan, Bolibian, Brasilen, Argentinan, Mozambiken, Txinan, Taiwanen, Filipinetan, Tailandian eta Bangladeshen eredu izatea, Fededun naiz Fedegabeentzat!

Gainera oinordekoek lurralde bertatik hasi eta lurralde horietan, etorkinekin, emakumearen garapenean, kartzeletan, arriskuan dauden haurrekin, familia eredu ezberdinekin, langabetuekin, prostitutuekin, etxegabeekin... lan egiten dugu; de non arteko gizarte hobea eraikiz.

## Erantzukizunez egunekoari begira

Erantzunak, erreakzioak anitzak izan dira. Ni honekin guztiarekin poztu egin naiz. Honek erantzukizunez jokatu behar dugula adierazi nahi du. Une historiko batean gaude, eta lehen bezala eta orain arte, jarraitu nahi dut herriagatik neke pixka bat jasanez, zergak zuzen ordaintzen jarraituz, eta eguneroko lana gero eta txukunago eginez aurrera joanez. Alemanak tinko, zintzo eta latz eginez jaso omen zuten, Hitlerrek suntsitutako herria. Gurea ez dago suntsituta, bai mota askotako krisian sartuta dagoen herria eta itxaropena, erantzukizuna eta elkertasuna tonaka beharko duen herritarren bultzadaren beharrean dagoena.

Orain sartu garen garai aldia berria eta ona dela uste dut. Ni poztu naiz ezker abertzaleak ETArri eskatzea armak isiltzea. Beste alderdi abertzaleek eta beste motatakoek aspaldi eskatu zioten. Nolaz ez, baita herriaren gehiengoak ere. Konponbidearen aldeko giroa hobetu egin da. Benetan zoriontzekoa eta pozik egotekoa. Hala ere, hobe armak uztea eta deuseztatzea.

Gure herri maite honek ez ditu armak hartu, nahiz eta batzuk hori uste. Gehiago esango nuke, herri honek armak, gogorkeria eta baita "hainbat gerra zikinak" arbuia eta gaitzetsi egin ditu. Euskal Herriak politika bidez nahi zuen/du askatasuna lortu, euskal nortasuna sendotu, ekonomia aurreratu, euskara indartu... honela eman zitzaion hasiera 1978an erreforma politika hari... eta diot zorionez, bestela non ote geundeke?

Sarri askotan esan ohi dut ETA eta "bere borroka armatua" Euskal Herriaren askatasun bidean, aurrera karga baino gehiago atzera karga izan dela. Ni ez naiz inor esateko zer egin behar den, baina ez naiz fronte eta indar metaketa berri baten aldekoa. Orduan, zer? Gutxienez euskaldunen batasun minimoa, euskalduntasun eta burujabetza-nahiak sustatu eta indartu. Elkarrekin, eta ez baturik, lanean herria eta aberria eraiki.

Demokrazia, Estatutua, Foru Hobekuntza, Europa... pauso argiak izan ditugu gure herri bidean. Hori sendotu behar dugu. Eta gure herri-ametsa asmo bihurtu, Euskadi gure aberria dela, eta aberri eraikuntza bideratu behar dugula. Eta orain arte egindakoa ez dela alferrikakoa izan.

Burujabetzak eta gerrak konpontzen ez dituen arazoak badaude. Denen borondate ona behar da auzien konponbiderako. Besteren borondatea, berriz, norbere borondate onez bakarrik irabazten da. Elkarrekin bilduz, hitz eginez, beste entzunez eta pixkana-pixkana irizkidetuz bakarrik konpon daitezke gaur egun auziak.

Afrikako iparraldeko agintarien mezuak eta jokabideak zahartuak eta herri kontrakoak dira, uste dut Kuban ere horrelako zerbait gertatzen dela, eta ETArene ere halaxe. Europaren eraikuntzari moldatzen ez bagatzaizkio, ez dugu etorkizunik. Hala ere, ez diogu Europa kapitalari bakarrik begiratu nahi, baita Europa sozialari, ongizatez osatutako herrialdea.



Joxe Agustin Arrieta  
Epailea

Batzuk lehendik, besteak orain, konturatu ginen/dira indarkeriak ez duela ekarpen onik eskaintzen. Lehengo otsailaren 7an "Sortu" alderdi berria jaio da, eta urtarrilaren 10ean aspalditik itxaro zen agiria kale-ratu zuen ETAk, betidanik erabilitako eta iragarritako indarkeria eten egin zuela, ez betirako utzi, hala ere, ez da gutxi.

Guztion beharra badaukagu, egoera demokratikoa sendotzeko. Hala ere uste dut, abertzaleen egitasmo iraunkor batek pare bat abertzale alderdi indartsu osatzea eskatzen duela; indarrak hain sakabanaturik dauden lekuan zaila da egitasmo bateratu bat egitea, are eta zailagoa iraunkorra izatea. Utz ditzagun gure taldekeriak eta errealismoz geure soziologia kontuan izanik eguneroko arazoei heldu diezaiogun. Herri nortasuna bideratu eta egituratu dezagun, negozioa dezagun espeteratu den egoera eta hasi gaitezen/jarraitu dezagun denok serio herrigintzan eta eus-kalgintzan.

# Hara, zergatik ez euskaraz? (VII eta azkena) Zine aretoak

Zenbat aldiz ikusi dituzu filmak euskaraz zine aretoetan? Eta etxean, DVD formatuan? Ez duzu inoiz pentsatu desoreka handia dagoela gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen dizkiguten filmen artean? Gauza bera gertatzen al da Katalunian, adibidez? Guk zerbait egin dezakegu?

Imanol Haro

UEMAko hizkuntz normalizatzailea

Aurreko aleetan, hizkuntz eskubideak zer diren eta arlo jakin batzuetan euskaldunok ze hizkuntz eskubide eta hizkuntz aukera ditugun izan dugu hizpide. Gaurkoan, kanpotik datozkigun filmen gainean arituko gara, eta Kataluniako eta Euskal Herriko egoerak alderatuko ditugu, Kataluniako Zinearen Legea oinarri hartuta.

## Zein da euskararen egoera zine aretoetako filmen eskaintzan?

Zine areto komertzialetako egoera ez da askorik aldatu Francoren garaitik: erdarazko filmak %100 izatetik gertu dira, %100 ez badira. Sare txikiagoetan (zine forumetan...) eta ekimen jakin batzuen ondorioz euskarak tarte handiagoa izan

badu ere, EHTik kanpoko film euskaratuak hutsaren hurrena dira.

Zine aretoek eskaintzen duten filmetan euskararen eskaintza handitzeko ez dago lege garapenik, Euskal Herriko inongo eremu juridiko-politikotan, eta hurrengo urteetarako ere ez dago aurreikusita legerik.

## Kataluniako adibidea, eredu-garria?

Katalunian ere antzeko egoera bizi dute gaur egun: zinemaren %2,7 ematen da katalanez. Katalanezko Zinema Aretoen Sarea dago (53 areto), baina horren eragina txikia da merkatuan. Beraz, hemen bezala, diktadura garaian bezala ematen dira film gehienak: gaztelaniaz.

Horren aurrean, Kataluniako Generalitateak bultzatuta, Zinearen Lege berria onartu zuen Kataluniako legebiltzarrek. Legearen bidez, derrigortasun batzuk ezarri dizkie administrazioak filmen banatzaileei eta zine aretoetako arduradunei. Derrigortasunak filmen jatorrizko herrialdearen arabera dira:

- Amerikako Estatu Batuetako filmetan, kopien erdiak katalanez ematea (azpigituluekin

## Irakurle taldea

Martxoko tertulia

Eguna: martxoak 10, osteguna

Ordua: 19.30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Irakurri beharreko liburua:  
"Habitat"  
Katixa Agirre

edo bikoiztuta).

- Europako filmetan ere gauza bera, baina soilik 15 zine areto baino gehiagotan ematekoak badira.

- Beste herrialdeetako filmetan ere gauza bera, nahiz eta kasu gehienetan gaur egun irizpide hori betetzen duten gehienek (Txinakoeak edo Iran-goeak, kasu).

Zine aretoetako filmetan ez ezik, DVDetako filmetan ere eragiten du legeak: Katalunian banatu beharreko DVD guztietako hizkuntz aukeran katalana sartzeari derrigortzen du.


Legearen helburu nagusiak hiru dira: koofizialtasuna eta elebitasuna zinearen alorrera eramatea, herritarren hizkuntz aukera gauzatea eta katalanaren erabilera ahalik eta gehien %50era hurbiltzea. Gainera, ezarritakoa betetzen ez dutenentzat isunak aurreikusten


ditu legeak: 1.000 eta 5.000 euro artekoa kopia bakoitzeko, eta 75.000 euro gehienez. Legea aitzindaria da Europan, "hizkuntza normalizatuak" dituzten herrialdeetan ere ez baita abian jarri halakorik.


### Agurra

Honekin amaitu da hizkuntz eskubideei buruzko artikulu sorta. Helburua euskaldunon hizkuntz eskubideen eta hizkuntz aukeren berri ematea izan da, baita euskararen aldeko mentalitatea eta jarrera bultzatzea ere. Izan ere, etorkizunera begira, euskara toki eta egoera gehiagotan erabiltzerik nahi badugu, ezinbestekoak izango dira bi gauza: batetik, euskararen erabilera arautze-

ko, legea garatzea, eta, bestetik, euskaldunok presio egitea dagokion arduradunen aurrean, bai norbanako gisa, bai beste euskaldunekin koordinatuta.

"Hara, zergatik ez euskaraz?" izenburua jarri diogu artikulu sortari. Ez litzateke txarra izango hemendik puska batera beste artikulu sorta bat egitea "Lortu dugu euskaraz" izenburuarekin. 



 Galtzaundi 339  
11ko martxoak 4



Baserriko produktu naturalak  
Mahala baserria • LEABURU  
Tel.: 943 673 499



Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalaketak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199  
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO  
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta  
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7  
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

# ANTZA

# Performancea Emakumeek erabilitako arte adierazpena

8



Aurrez Aurre jardunaldien testuinguruan Maite Garbayok, Josebe Iturriotzek eta Santi Erasok performancea mintzagai izan dute. Maite Garbayok 'Performancea eta Feminismoa', Josebe Iturriotzek 'Performancea, Generoa eta Trabestismoa' eta Santi Erasok ordea 'Iñauterietako erritu performatiboak' landu dituzte. Performancea ikuspuntu ezberdinetatik jorratzeko eta ulertzeko aukera.





👉 Aldikatenea taldea Aranburu Jauregian.

#### Performance eta Feminismoa

Maite Garbayok performancearen garrantzia eta bilakaera aztertu ditu Aranburu Jauregian. Performancea bide berri samarra da, hori dela eta baliteke bestelako arte adierazpe-nei antzemandako konnotazio maskulinorik ez izatea. Has-tapenetik emakume artistek berea egin dute. Performancearen jatorria aurreko mende hasierako abangoardietako zenbait mugimendutan –dadaismoa, futurismoa...– kokatzen bada ere, 60 eta 70. hamarkadetan indartu egingo da, arte munduan feminismo diskurtsoa barneratzearekin batera. Hasierako artista feministek performancean ekarpen garrantzitsuak burutuko dituzte, ekintza estetiko-politikorako funtsezko bide bihurtuz.

Maite Garbayoren esanetan maskara, mozerroaren kontzeptua lehenengoz Joan Riviere-k aztertuko du, feminismoaren era berriak azaleratuz. 1929an Riviere-k emakumezkoen sexualitatearen baitan eztabaida sortuko du, ordura arte kontzeptu iragazgaitz modura ulertutakoari ikuspuntu berria ezarriz. 'Feminitatea maskarada modura' diskur-

tsoaz bestelako emakumeak egon bazeudela azaleratu nahi izango du. Emakume hauek ordura arte gizonezkoen ezau-garriak eurenak egin zituzten, lanbide bat izatea kasu. Gizarteak ezarritako itoaldiari aurre egiteko feminitatea erabiliko dute ekintza performatibotzat.

Bilakaera honen baitan kontutuan hartu beharreko beste izen bat Claude Caun –argazkilaria, idazle eta poeta– da. 1929an autorretratuaren bidez pertsonaia androginoa azaleratuko du, hirugarren terminoa aurkeztuz, ez maskulinoa ezta femeninoa ere. Argazki performatiboaren bidez bikoiztasuna azalduko du.

Denboran aurrera eginez, errepikapenaren kontzeptua azaltzen da. Drag queen-en agerpenarekin, errepikapena erritu bihurtu eta genero performancea sortzen da. Butler-ek aztertutakoaren arabera sexu eta generoaren arteko dikotomia gizartearen eraketa da. Artista ezberdinei bidea eman eta adibidez, LaGrace Volcano ere sexu eta generoaren arteko kategoria ez naturalaz arituko da.

Performancea arauak iraultzeko bide gisa erabilia izan da.

## Zertarako mozerrotu?

I.M.

Iñauteriak eta genero rola izan dituzte aztergai Maddi Garcia eta Oihane Amantegi antropologoek Tolosako berdintasun sailak antolatuta burutu diren "Aurrez aurre" topaketetan. "Mozerro bat bururatzen zaigunean generoak nola eragin digun eta nola eragitea gustatuko litzaigukeen aztertzea garrantzitsua da", ondorioztatu dute. Baieztapen hori egiteko, gizonezko askok emakumez mozerrotzean izaten duten jarrera hartu dute kontuan: "muturreraino eramaten dute emakumetasunaren irudia pelukaren, makillajearen, gona laburren, takoiaren, bidez".

Inauterien harira egiten diren bi ekitaldi konkretuk ere eman diote zer pentsatua bi ikerlari hauei: Kaldereroetako karrozak eta sardinaren hiletak. Kaldereroetako karrozari dagokionean, "bi figura maskulino erreginaz jantzita agertzen dira. Jantzia gain jokaera ere kontuan hartu behar da: ilea mugitzearena, bularra ateratzearena, ... Sardinaren hiletan, berriz, emakumeak sufrimendua eta pena sinbolizatzen du negarra eginez eta zarata atereaz. Gizonezkoak, aldiz, publikoari zuzentzeko eta sardina lurperatzeko funtzioak betetzen ditu. Gizon arrazoidunaren eta emakume emoziodunaren dikotomia ematen da performance honetan", azaldu dute Garciak eta Amantegik.

Trabestitzea, ordea, genero kategoria zalantzan jartzeko bide ere izan daiteke. Bide horretan, Judith Butler feministaren gogoetak ekarri dituzte mahai gainera. Feminista estatatu batuaren iritzian, trabestismoak zalantzan jartzen ditu sexu genero kategoria. "Emakume edo gizon izatearen paperak zeintzuk diren ezartzen ditu jendarteak. Ze norma dauden horien gainean. Eta, trabestismoak generoaren egia, koherentzia eta egonkortasuna zalantzan jartzen ditu. Kategoria ez dira zertan zurrunka izan. Dena ez da %100 gizonezkoa edo emakumezkoa eta, beraz, 11, 12 edo 25 genero identitate egon daitezke".

Garcia eta Amantegiren esanetan, iñauterietan ere badira zenbait arau, balio eta bete-beharreko. "Nor bait haur bat jotzen duen pertsonaz mozerrotu eta haur bat jotzearen antzezpena egiten hasiko balitz, seguruenik, ingurukoek hori ez dela onargarria esango genioke". Bide beretik, "guturiko bakoitzaren egitekoa da mozerrotzera goazenean generoak nola eragiten digun eta nola izatea nahiko genukeen pentsatzea", azaldu dute. Izan ere, trabestitzean "genero kategoria hegemonikoak indartu eta justifikatzen aritu ahal gara edo kategoria horiek zalantzan jarri eta kritikatu egin ahal ditugu".

## Emakume gai<sup>z</sup>toak

Eider Elduaen  
Tolosaldeko Bilgune Feminista

Iñauterietan beti izan dut tentazioa nere alde "radikala" ateratzeko. Iñauteriek bi aukera ematen dituztela uste dut; urte osoan hain ezkutuan eramaten ditugun aurpegi horiek kaleratzeko aukera edo hain itsatsiak ditugun rollak exajerazioaren bidez ridikulizatzeko. Ez dizu inork gaizki begiratu, ez dizu inork burlarik egingo, ez dizu inork kritikarik egingo; eta eginda ere, Iñauteriak dira! Ez da ezer pasatzen. Kuadrillan beti bozkatu izan dut "emakume iletsuaz" ateratzeko edota bikote lesbianen ezkontza irudikatzen. Super Emakumea ere beti iruditu zait ideia ona; ama, alaba, emazte, amorante, langile, militante...denak bat eginda. Ederra antolatu genuen emakume haurdun solteraz atera ginenean eta ze earki pasa genuen exorzistaz atera ginen hartan...! Elkarrizketa ere ematen geniola, aurpegia dena zauriz josita, espinaka purea elkarrizketa (eta inguruan harrapatutakoari) boteaz. Ez genuen batere ligatu, liskarren bat edo beste ere izan genuen, baina guretzat liberazio moduko bat izan zela sinetsita nago.

Ez da kasualitatea hainbeste gizonezko emakumezko moztortzearen iñauterietan. Izugarria da! Ze gizonezko ez da emakumezko moztortzearen duten alde femeninoa ateratzeko aukera ez dute galtzen. Bularrean daramaten globo zarra ziztatzean bezala desagertzen da ordea, askoren gan, Iñauterietan batera.

Iñauterien atzean uste dut badela aldarrikapen gogo bat; batzuetan ezkutua edo beste batzuetan agerikoagoa. Aurrez Aurre jardunaldiak izan berri dira Tolosan. Transgresioak, genero performancea eta trabestismoaz hausnarketa egiteko aukera ezin hobea izan direla uste dut. Ikusi dugu, besteak beste, punkiek ere negar egiten dutela edota artista feminista askok erabili izan dutela eta erabiltzen dutela performancea ekintza politiko gisa. Bilgune Feministatik ere ez dugu aukera galtzen utzi nahi izan. Aurten Emakumeon Nazioarteko Eguna, Martxoaren 8a, Iñauterietako asteartearekin bat dator eta *Super Emakumeen* kapa jarrita aterako gara kalera. *Ramos Azkarateren alaba gaiztoak* izango gara. Ramos Azkarate bai, Galtzaundiren bertsoak idatzi zituen tolosar euskaltzalea, Berdura plazan bere txokoa duen jaun txit gorenaren alaba gaiztoak izango gara. Urtero bere eskulturaren ondoan agertzen den bertso horretan inpernura bidaltzen dituen alaba gaiztoak. "*Abajo las mujeres, deabruz josiak, ai! Ilda bazeundete, zerraten guztiak, josapatien izango, ditugu auziak, han konponduko zaitu, goiko justiziak*". Ba, aurrez aurre topatuko du aurten Alaba Gaiztoen bertsoa eta haien oihuak berriz, Tolosako kaleetan gora eta behera. Gonbidatuak zaudete emakume guztiak! Jantzi kapa moreak bizkarrean eta kulero moreak buruan, eta ibili gaitzen munduan!



Maite Garbayoren iritziak, teoria feministen eta arte praktiken arteko elkargunea izan da. Performancearen maisu-maistra izenen zerrenda luzea aurkeztu daiteke, guztiak adierazpen bide honen bilakaeran zerkusua izandakoak: Yves Klein, Piero Manzoni, Hannah Wilke, Ana Mendieta, Valie Export, Niki de Saint Phalle, Esther Ferrer, Fina Miralles, Olga Pijoan, María Ruido, Pilar Albarracín edo Itziar Okariz.

Iñauterietako erritu performatiboak

Iñauterietan zer nolako erabilera ematen zaio performanceari? Galdera honi Santi

Erasok eman dio erantzuna. Gizonezkoak iñauterietan eramasiboan trabestitzea ez zaigu arrotz egiten, baina jokaera honen atzean berdintasuneko gunea sortzen al da? Kultur aditu honen hitzetan, hainbat hamarkadatan, Tolosako iñauterietan segregazio paternalistaren erakusleho izan dira.

Emakumea iñauterietan erritu performatiboaren bitartez erregina bihurtu zuten, herritarra izatea lortu aurretik gainera: "aktibo parte hartzailea baino lehen estereotipo segregatzaileen bitartez emakumea beti erregina izan da, inoiz ez herritarra".

Estereotipo hauen aurka



Galtzaundi 339  
11ko martxoak 4

matxinatzeko ordua heldu eta trabestismoa 1970eko hamarkadan, neofeminismoaren ikurretako bat bihurtu zen. Trabestismoa, metamorfosi modura uler daiteke, bestearen ezaugarria gurea egitea, alegia. Trabestismoa, mimesia edo beldurra izan daiteke, bestearekiko beldurra. Mehatxu gisara ikusitakoaren aurrean mozorroa jartzea ere, trabestitzea izan daiteke.



Performancea, Generoa eta Trabestismoa

Josebe Iturriotzek performancea, generoa eta trabestismoa aztertu ditu, XX. eta XXI. mendeko feminismoa ulertzeko oinarritzeko hiru kontzeptu. Iturriotzek bere hitzaldiaren hasieran Judy Chicagori egin dio erreferentzia. Chicagok gizonetzkoa subjektua eta emakumezkoa objektua izatearen gaian haustura sortuko du. Performancea gertatu ahal izateko, beharrezkoa da generoaren rolen inguruan subertsioa ematea.

Honen aurrean inauterietan emandako zenbait egoera aztertu ditu Iturriotzek, gizonetzko gehienek jokoera eztaba da gai bihurtuz. Gizonetzkoak emakumezko mozorroa jartzen duenean ez du subertsiorako

egiten, emetasunarekin dibertitzeko burutu ohi du, irrigarri uzteraino. Aurrera eramandako trabestismo hori gainera ez da benetako feminitatearen adierazgarri. Maskulinitatearekin ordea kontrakoa gertatu izan da; feminitatea moldagarri eta irrigarria izan bada, maskulinitateak bastioi-gotorleku naturala izatera izan da.

80ko hamarkadako inauterietan emakumeak gizonetzkoen mozorroak jantzen hasiko dira, jantzi bai baina ez performance bihurtu. Gizonetzkoek ordea 70eko hamarkadatik emakumez jantzi eta emakumezkoek betaturik zituzten jokoera adieraziko zituzte kalean barrena.

Horrelako jokoaren aurrean feminismoa alor pribatu

tuetan garatzen hasiko da. Gorputz esperimentazio performanceak aurrerago sortutako adierazpenak izango dira, drag king, travestismoa, queer-ak...

Iturriotzen aburuz Euskal Herrian ez dago kolektiboaren sarrerik, ez dago artikulaziorako indarrik baina bai ordea kolektibo ugari era esperimentalean aritzen direnak. Mugimendu txikia da, gorputza esperimentazio iturri erabiltzen duena. Beatriz Preciado eta Itziar Ziga kontutan hartu beharreko bi izen izan daitezke. Ekintza performatibo hauen bitartez ukatutako espazio hori berea egingo dute emakumeek, gunen publikoan transgresioa sortuz. ©

**matilda**  
zure moda osagaien denda  
Korreo Kalea, 3  
Tolosa

**GORRI**  
Paper manipulaziorako  
makina eraikuntza  
Konponketa  
eta mantenimenduak  
Apatta industrialdea.  
Baratzondo D 26. Ibarra  
Tel.: 943 671 590.  
Faxa: 943 673 916

**SANZ**  
arraindegia  
Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Gozotegia Okindegia  
**ECEIZA**  
P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Emakumeen I. Xake Topaketa

# Anoetak emakumezkoen xakea badela erakutsi nahi du

Emakumeen Nazioarteko Eguna abiapuntu hartuta Anoetan Emakumeen I. Xake Topaketa ospatuko da datorren martxoaren 13an. Topaketa beraren nondik norakoaz eta zergatiaz ekimenaren antolatzailearekin, Jone Doktoriarenarekin, hitz egiteko elkartu da Galtzaundi.

Naiara Roldán de Aránguiz

Jone Doktoriarena Anoetako xake ikastaroez arduratzen da, bera da bertako irakasle eta ekintza ezberdinen antolatzaile. Xake munduan berandu barneratu dela aitortzen du, kasualitatez gainera. Bere alaba xakean hasi izanagatik hurbildu zen kirol honetara. Era ludikoan Anoetan eskaintzea erabaki zuten eta begiralerik gabe geratu zirenean berak hartu zuen testigua. Ingles irakaslea den heinean irakaskuntza bera arrotza ez zitzaiola egin aitortzen du apaltasunez: "irakatsi ahal izateko ikasi behar izan nuen. Oinarria erakusten diet ikasleei, oinarri sendoa". Gustukoen dituen klaseak emakume helduenei, amonei, eskaintakoak dira: "euren ahalegina benetan eskertzen dut, horrenbesteko interesa erakusten dute horren arrotz suertatzen zaienarekiko."

Jone Doktoriarenari topaketaren zergatia edo helburuaren inguruko galdera luzatzeko or-

duan erantzun zuzena bota du berak: "arrazoi bat edo beste dela medio emakumeak xakean duen parte hartzea ia hutsala da. Egon badago eliteko xakelariaren bat baina txapelketetan, eskola-arte-koetatik hasi eta gazteenera bitartean, ia ez dago emakumerik. Emakumearen parte hartzea saritu egiten da, partaidetza sustatu nahiarekin".

Egoera honen aurrean eta Anoetan dagoen xakearekiko zailtasuna testigu Emakumeen I. Xake Topaketa antolatu du Jonek. "Neskatilak, emakume gazte eta helduak xakean jolasten biltzea otu zait", dio errebindikazioz. Eta baita gaineratu ere: "badakit ez dudala sekula emakume talde bat lortuko, inork lortu ez duena ez dut nik lortuko, baina behinik behin, egun batez bada ere, emakumezkoak bildu nahi ditut xakean elkarrekin jokatu dezaten".

Adin ezberdineko emakumeek, martxoaren 13ko goizean,

bat egingo dute kirol honetaz gozatzeko helburuarekin. Bertan, Anoetako Xake Txokoaz ezaguturiko Ospel Lokalean, izango dira parte hartzaileak gazteena -5 urte- xakean hasiberria dena eta baita helduena ere -80 urte-.

Familia bereko amona, ama eta alaba batek topaketarekin bat egiteak xakea adin guztientzako trebezia dela erakutsiko du. Jonek agerian utzi nahi du gainera xakea jokoa, dibertimendua, kirol zientifikoa eta adimenaren garpenerako elementu lagungarria dela.

Topaketa honetan Anoetako zein eskualdeko xakelariak elkartuko dira, baliteke gainera Baionatik ere gerturatzea. Emakumei zuzendutako lehen bilgunea izanik, aurrekaririk gabekoa, hogeitahamar lagun biltzea ontzat hartuko luke Jone Doktoriarenak: "momentuz 20 bat lagunek izena eman dute, pausua ematea asko kostatzen zaie, kikildurik



sentitzen dira baina lehen aldia izateko eta xake munduan dagoen emakume kopuru baxua kontuan harturik pozik nago". Izena emateko Anoetako Udaleko kultur teknikariarekin harremanetan jarri beharra dago, 943 651 200 telefono zenbakiaren bitartez. Orbinok laguntza ematen du topaketa antolatzeko.

#### Ikastaroak eta Xake Elkartea

Urtean zehar Anoetako Udalak xake ikastaroak antolatzeaz gain, ostiralero xakearekiko zaletasuna dutenek arratsaldeko 17.15 eta 20.15 bitartean Xake Elkartea zabalik dute. Adin ezberdineko pertsonen zuzendurik dago eta Jonek berak aitorrutakoaren arabera "Anoeta herriarentzat erreferentzia" da.

Ikastaro hauetan 35 bat ikasle biltzen dira, haietariko 6 baino ez dira emakumezkoak eta txapelketan eta jokoan beti elkarrekin aritzen dira emakumezkoak eta gizonezkoak. Ikasle kopuruari dagokionean aipatu beharra dago urteak aurrera egin ahala matrikula-

zio kopuruak ere gora egiten duela: "kurtsoa beti hasi baino ikasle gehiagorekin amaitzen dugu", zehazten du Jonek.

Nesken kasuan, erabakiak taldeka hartzen dituztela aitorru du xake irakasleak; neska batetik izena emateak atzetik neska gehiagoren etorrera dakar baina baita baja ematerako orduan ere. Xakearekin jarraitzea erabakitzen dutenak, benetan oso onak direlako mantentzen omen dira Joneren esanetan.

Egun oso maila onean ari dira Anoetako ordezkariak, Xake Eskolarteko Jokoa amaitu berri den honetan eta sei anoetar xakelariak (Oier Otxoa, Ekaitz San Sebastián, Iker Artola, Iraia Otxoa, Beñat Nogales eta Aiora Oteiza) lehen, bigarren edo hirugarren postua eskuratu duten honetan balorazio ezin hobea egin du Jonek. "Maila oso altua, lehia handia egon zen eta hori dela eta pozgarria da ume zein gurasoei serioki ari garela erakustea, pozik gaude egindako lanarekin", erantzun zuen. Hori dela eta, maila mantentze alde-

ra, hurrengo txapelketa, Kutxa Saria, prestatzen hasiko dira.

#### Xakearen onurak

Xakeak kirol zientifiko klasifikazioa izanik horretan trebezia hartzen duenarentzat onurak dakartza. Haietariko batzuk zehaztu ditu Jonek: kontzentrazioa eskuratzea, diziplina izatea, ikasketetan laguntza bihurtzea, oroimena garatzea, erabakiak hartzen laguntzea... Hauek guztiak jokoan hobera eginez gero, helduagoak izatean, ezinbesteko laguntza bihurtuko dira bizitzako arlo ezberdinetan.

Xakean trebatzen hasteko adin aproposaz galdetu diogu Joneri eta bere esanetan neska-mutilak 6 urte dituenen garai ona izan daiteke. Hala ere, haurrak xakean jolastea lehenago eskatzen badu ez omen dago arazorik irakasten hasteko. Horren adibide dira eskola arteko txapelketan sarituak izan berri diren benjaminetan lehiatutako haurrak, 6 urterekin lehen emaitzak jasotzen ari baitira. ☺

Beti Niri  
gaitzeko



Garaian garaiko janariak  
eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

euskararen  
semaforoa  
euskararene semaforoa  
blogspot.com



Arteka

ESKULANAK


Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577

Bedaiopetarren bizimodua islatzen duen "Ordu Bietan Frontoian" eleberriarekin ezusteko atsegina eman berri du

# Jokin Ansorena

## literaturaren harrak harrapatuta

14



Jokin Ansorenak (Donostia, 1963) hogeita bat urte egin ditu Tolosako Udalean kultur teknikari. Urtebeteko etenaldia eszedentzia bat tarteko, aurretik erabakita ez izan arren, nobela bat idatzi ahal izan zuen. Herriko kulturaren bilakaeran ofizioz partaide izanik, Tolosa gogorazten duen Bedaiopen kokaturiko *Ordu Bietan Frontoian* ia lauhun orrialdeko bere lehen nobela argitaratu berri du. Bertan maitasun istorio desberdinak korapilatzen dira, ironia, Athletic zaileen batzarra, umorea, gastronomia, politika; oroitzapenez osaturiko literatur dastaketa gazi-gozoa osatzen du.

Felix Aiestaran

Jokin gaztetxoak izanik, Ramon Saizarbitoria edo Koldo Izagirre moduko Euskal Literaturaren munstro literarioek beraiekin batera aritzeko aukera eman zioten 60ko hamarkadan, *Oh Euzkad!* literatur aldizkarian partaide izanez. Garai hartan *Poemak* poesia liburua argitaratu zuen Alex Azkue ezizenarekin.

Narrariorako bere dohainekin topo egin du, eszedentzian egon den aldian nobela osatzeko testuen orrazketa eta hautaketa nekeza eta mingarrian. Honetaz guztiaz hitz egiteko, nobelako pertsonaia ere baden bere adiskide Roberto anfitrioi izanik luze solas egiteko aukera izan genuen Frontoiko txoko batean arratsaldeko bostetan.

**Laurogeiko hamarkadan ere izan zenuen literatura munduarekin lotura estua...**

Gaztetan *Oh Euzkad!* aldizkarian aritzeak literatura munduko lagun askorekin aritzeko aukera eman zidan eta gero, kultur teknikari izateak ere bide eman dit literaturgintzaren loturari eusteko. Literatura irakurle oso zalea naiz. Hemezortzi urterekin Alex Azkue ezizenez *Poemak* poesia liburua argitaratu nuen. Lotsa edo, ez dakit zer dela eta, ezizena erabili nuen, baina gaur egun, eskarmentuak emandako heldutasun eta ausardiaz aritzeko moduan naiz.

***Oh Euzkadin parte hartu zenuen. Nola oroitzen duzu garai hura?***

Pribilegiatu baten moduan gogoratzen dut. Nerabezaroen harrapatu ninduen eta nik ezer gutxi eman nezakeen ingururata nengoan. Ramon Saizarbitoria edo Koldo Izagirre moduko erraldoien aldamenean. Beraiekin aukeratu, lagundu eta babestu



"Eskarmentuak emandako heldutasun eta ausardiaz aritzeko moduan naiz."

egin ninduten. Partaide baino gehiago proiektu hartan lekuko izan nintzen eta beraiekin harremana gorde ahal izan dut. Oso ondo pasatzen genuen, liburuak gomendatu eta oparitu ere egingen zizkidaten.

**Ustela Sailean Alex Azkue ezizenez *Poemak* liburua argitaratu zenuen. Erraza izan al zen poesia liburua osatzea?**

Oso irakurzalea izanik, beti menperatu izan dut hizkuntza eta teknika literarioa. Barruan duzuna modu azkar eta eragin korrean islatzeko poesia bitarteko ona da. Poesia hura oso gustukoa izan zuten Ramon Saizarbitoria eta Koldo Izagirrek. Garai hartan ez zen erraza argitaratzea.

**Argitaratze kontua aipatzen duzunez... liburu elektronikoak zein tokia izango du?**

Hurrengo ezinbesteko pausua hori izango da, bai irakurle bai idazleontzat. Liburuak ukituz gozatzen dutenetakoa naiz, baina ziur naiz hemendik bost urte baino lehenago etxean izango dudala... Dena den, ez dakit erabakita dagoen zein den liburu elektronikoaren formaturik egokiena; entzun dudanez alor hori ez da heldutasunera iritsi oraindik. Euskarriak berak ez nau gehiegi asebetetzen, neure

burua ez dut pantaila batean irakurtzen ikusten, baina bestetik alde onak besterik ez ditut ikusten. Etxea liburuz josita daukat eta espazioa izateko ere egokia izango da.

**Urtetako isiltasunaren ondoren, zer dela eta *Ordu Bietan Frontoian* eleberria?**

Patxada eta aukera izanik, bixikeriak alde batera utzita, egunero idatziz eleberria idazteari ekin behar niola erabaki nuen. Nire baitan ikertuz, idazten nuenari bide eginez, segi eta segi aurrera egin nuen. Izugarritzko gogoia nuen nobela idazteko eta erronkari eusteko gai izan naiz.

**Idazketa prozesua erraza izan al da?**

Denbora izan dut idazteko, baina idaztea izan bada sufritzea. Baina batzuetan konformidatea bilatzea ez da erraza eta idazketa prozesua autosuntsitzaila bihurtzen da. Azken orrazte eta txukuntze lanek muga bazutela erabaki nuen. Lanean hasi naizenetik urte eta erdian ez dut ezer idatzi... horrek ere zerbait esan nahi du.


**Roberto sukaldaria aholkulari eta konfessore... Fronton jatetxea sukaldaritzaren katedrala?**

Hor adiskidetasun kontua dago: lagun talde bati egiten

Galtzaundi 339  
11ko martxoak 4

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com



  
**ARTE  
TAILERRA**  
HAURRAK ETA HELDUAK  
**Matrikula zabalik**  
Tolosa - Kale Nagusia, 16  
Tlf. 677 340 685

**ZABALA  
DESGUAZEAK**  
KUDEATZAILE BAIMENDUAK  
EU2/11/04  
  
BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA  
TEL/FAXA: 943 671 790 -  
MUGIKORRA: 696 593 347

## Zuzentasun politikoa- ren asepsiak batzue- tan barregura sorta- razten dit.

diodan omenaldia. Bikote eta istorio desberdinek Frontoian aurkitzen dute topalekua. Roberto bigarren mailako pertsonaia modura azaltzen da; baimena eskatu nion... Aurretik pentsatu gabe liburuan bost edo sei aldiz aipatzen den hitzordua liburua-zen izenburutzat hartzea erabaki nuen. Pertsonaia erreal bakan batzuk azaltzen dira... Hor aipatzen dut Xabier Lopez-Mendizabal, Tolosan lan egin dudan urteotan ezagutu dudan pertsona eta bizitzeko modu bati omenaldia egin nahi izan diot. Xabier abertzale eta erromantiko handia zen eta nolabait leku eta garaiz kanpo geratu ote zen ustea dut, baina nik horrelako jendea asko maite dut.

**Jatetxeko plater desberdinen dastaketa aipamen ugari agertzen da...**

Nobelako beste atal guztien moduan, plater kontuen gehiena ere asmatua da. Idazte prozesuak irakatsi dit, denok badugula

gure barruan espero ez dugun zerbait.

**Olentzero Mari Domingirekin ez-kontaraztea Euskal Herrian bizi dugun zuzentasun politikoa-  
ren joeraren biktima berria al da?**

Seguraski ni ere halakoa naizenez, zati handia ironikoa atera da, baina badira ironiarik gabeko pasarteak oso serioak direnak. Teknika desberdinak erabili ditut. Zuzentasun politikoa-  
ren asepsiak batzuetan barregura sorta-  
razten dit. Ez naiz horietakoa, eta kito. Gertaera hori islatu egin dut, baina errespetatu egin dut. Udaletxean lan egiten duzunean alde batetik eta bestetik egiten direnak ikusteko aukera izatean, horretaz trufa egiteko aukera ematen dizu. Ironia erabiltzen ere jakin egin behar da, bestela mingarria gerta baitaiteke.

**Egunkariko auzipetuek izan zu-  
ten moduan Inaxio Uriari ETak ez ziola defentsarako aukerarik eman aipatzen duzu...**

Giza eskubideak denontzat berdinak izan behar dutela uste dut. Giza eskubideak kartzelan eta lurpean daudenen-  
tzat berdin-berdin eskatzen ditut. Kartzelatik at-  
ra ondoren, norbait hil du-  
tenean haren eskubideen alde ez dela jarriko jakin-  
da ere, halako eta halakoren alde mobilizatu

izan naiz. Badirudi kapitulu hau bukatzeaz dela... ez dut esango idazle konprometitua naizenik, baina pentsatzen dudana adierazteko ez dut beldurrik. Egunkariaren auziaren aurka egon naitekeen moduan, Inaxio Uriaren asesinatzea salatzen denean egon naiteke. Bortxakeria eta heriotz zigorraren aurka... giza eskubideen alde egon izan naiz, beti.

**Abendu bukaera aldera kultur ekitaldiak pilatu eta talka egiten dute programatzeko egunen banaketa egiterakoan. Bedaiopeko (Tolosa-ko) kultur mitoa hortik al doa?**

Hori anekdota da. Herriko eragileak eta kultur zinegotziaren agintekeria azaltzen da. Okerreko aginte txikiak ere ohitura txarrak sortzen ditu. Eleberrian autoritarismo merkea gainditu egiten da alkateari esker.

**Tolosa Bedaiope kokatzean, Bedaio azpian zein alorretan dago?**

Jolasa izan da. Ez nuen Tolosa aipatu nahi, literatur gune bat zelako. Tolosaren antzeko herri bat sortuz errealitate kanpo askeago mugi daiteke. Tolosarrak Bedaiope eraz kokatuko dira, baina Tolosan ez dauden gaiak ere agertzen dira, Bedaiope ez baita Tolosa.

**Herriko txutxumtxuak (moja eta Raimundoren istorioa)... Zer dago egitik?**

Ez naiz errealtatean oinarritu, baina badakit Euskal Herria ez dela izan beti saldu nahi izan diguten bezain xamurra. Baina bestetik, euskaldun peto eta kanpotar baten artean harreman naturala izan daitekeela azaldu nahi izan dut.

**Lehendakaria izan nahi duen zinegotzia agertzen da...**

Broma bat da. Lehen politikara ideietatik iristen zen, baina gero eta profesionalagoa bihurtzen ari da politikaren eremua eta Satisen bilakaerak hori adierazten du. Gizarajo bat da. Satisen eredua ez da politikaz nik dudak ikuspegia. Nobelak azaltzen diren alkate eta beste zinegotziak, idealistak ez dakit, baina politikan sinesten dutenak dira. Tolosan ezagutu ditudan politikari gehienak honelakoak izan dira.

**Amodio istorio ugari gurutzatzen dira... Erraza izan al zaizu lotzea?**

Kasu batzuetan nahikoa murreraino joan naiz; baldintzarik gabeko maitasuna beharrezkoa dugula sinesten dut. Sexu berekoak, adinean alde handikoak, erraz lotzen direnak... amodio istorio ugari azaltzen dira. Gizakiok ez gara animaliangandik arrazoiagatik besterik gabe bereizten, sentimenduen konplexutasunagatik ere aldentzen gara.

**La laurehun orriko liburua irakurterraza egin baduzu, narrazio-rako gaitasuna duzun seinale, ezta?**

Irakurtzeko ohitura duen jendeak ere esan dit oso erraz irakurri duela eta horrekin ni oso gustura nago. Kritika onak ere jaso ditut. Denek aitortu didate kontalari ona izan naitekeela, gutxienez. Balizko irakurlea oso gogoan izan dut. Idazketa bukatu eta jendearentzat eskuragarri jartzeko egin behar izan dudan testu aukeraketa eta txukunketa izan da nekagarriena. Testu orrazketa oso interesgarria, baina aldi berean gogorra da.

**Ba al duzu beste egitasmorik?**

Bai, zeharo desberdina izango denaren egitura egiten ari naiz. Idazteko harra sartu zait.





## Irakurlearen begietatik



Jone Gorostazu  
Irakurlea

Xabier Mendigurenek aukeratutako ipuin antologia bat da gaurkoan proposatuko dizuedana. 90eko hamarkadako zazpi ipuin biltzen ditu liburuak, egile ezberdinenak: Harkaitz Cano, Begoña Bilbao, Zorion Zama-kola, Txiliku, Luis Fernandez, Ana I. Morales eta Julen Gabiriarena, hain zuzen ere.

# Ipuin izugarriak Askoren artean

Gogoko ditut ipuinak; hitz gutxirekin istorio ezberdinetan sartzeko aukera ematen dizute, alferrikako luzamendurik gabe, apaingarri gehiegirik gabe. Soberan dagoena kentzeak nobelagile askori ematen dien pena, beldurra, baztertu ohi duten ipuinlariek, kontagai denaren mesedetan. Eta, egia esan behar badut, ipuin bilduma honek bete ditu nire itxaropenak.

Sariketa ezberdinak irabazi ondoren txokoan geratu diren narrazioak, zein inoiz inon argitaratu gabeak, elkartu dira liburu honetan. Gai, kontaera, garai ezberdinetakoak; baina, Xabier Mendigurenek berak hitzurrean dioenez irakurlearengan "hunkipen moduko bat" pizten dutenak. Ez beza inork pentsa beldurrezko ipuin bilduma baten aurrean gaudenik; bada horrelakoren bat tartean, asko gustatu zaidana, baina izugarri

hitzak badu beldurgarri ez den esanahirik ere; horrela, itzel, mi-resgarri, harrigarri, zoragarri... gisara ulertu behar genuke liburuaren izenburua.

Asko dira orri hauek irakurleari sorraraziko dizkioten sentipenak: biguina, ikara, barregura, pena... baina ziur ez dutela hotz utziko, eta dantzan jarriko dizkiola emozioak. Lehen ipuinak arrantzale giroko Euskal Herri tradizionalera garamatza, baina agerian utziko dizkigu garai hartako gizartearen azpian ezkutatzen ziren krudelkeria, ohorearen zama eta berekoikeria ere, hasieran erakusten duen inozentzia puntua goitik behera irauliz. Jarraian gerra zibila hizpide duten bi ipuin datozkigu, bieran ere protagonistak heriotzaren gertutasuna sumatzen duelarik, nahiz eta oso ezberdinak izan. Barre asko egin dut laugarren ipuinarekin;

badirudi idazleak ere barre egingen digula hitzez hitz, esaldiz esaldi, baina aurrera egin ahala barrea ezabatu eta beste sentipen batzuek hartzen duten gaina. Broma batekin hasten da ipuina, baina askotan txantxa guk sortua izan arren, bat-batean, gu geu bihurtzen gara haren esklabo... eta horixe gertatuko zaio protagonistari, ustez kontrolpean behar zuen egoerak eskuetatik ihes egingo baitio. Jarraian "Adibidez" kontakizunak egunerokotasun batetik abiatu eta fantasiaren bidetik amesgaizto batera eramaten gaitu; autobus batean, ustez inongo arriskurik ez duen leku babestu batean, mundua gainera jauziko zaiolarik protagonistari. Agian beldurtia naitzelako, eta legenda urbanoak gorroto ditudalako, eragin dit zirrara hurrengo ipuinak: nire lagun baten lagunari hau ger-

tatu zitzaion... kanpaleketan sutondoan kontatzen diren ipuin horietatik abiatuz istorio borobila egingen du egileak. Eta, azken ipuina laburra da, biguina sorrarazten duena: zerk ematen digu nazka? edonork egin ditzaken gauzek, ipuin honek erakusten digunez.

Orokorrean, beraz, bilduma aparta iruditu zait liburua; nortasun bereziko ipuinak dira, denak ere, eta irakurri ostean bihotzean zerbait piztu eta buruan geratzen zaizkizunak.



GKo Gallery, *street art*-ean erreferente

# Tolosa, Mixed Mediak lehenengoz bere erakusketa bat egiteko aukeratua

Tolosako Kale Nagusian kokaturiko GKo Gallery Mixed Mediak *crew* modura lehenengoz erakusketa bat aurkezteko kokalekua izan da. Apirilaren 2ra bitartean ikusgai egongo dira Aryz, Grito, Kikx, Poseydon, Rostro eta RGTD-ren digitalizatutako lanak. Tolosako herriari opari modura egindako mural erraldoia ordea, luzez mantenduko da eurentzat propio aukeratutako paretan.

Naiara Roldán de Aránguiz

Argazkiak: GKo Gallery eta Ana B. Alonso

18



*Street art* mugimenduaren baitan erreferentziako izena da Mixed Media eta hori dela eta, Gko-ko arduradun diren Garikoitz Murua eta Ibai Lukerentzat talde hau Tolosara erakarri izana "egi bihurtutako ametsa izan da". Lortu izanaren sekretua "giza harremanetan" datza eta ez ordea "harreman komertzial edo irabazi-asmoetan". Horrela aitortzen du behinik behin Ibai Lukek: "Tolosara erakartzearen zergatia lagun-arteakoak egiten du, loturak, alor berdinean ibiltzeak, bizitzeko modu hau ulertzeak".

Mixed Mediak bere lanak formatu erraldoietan osatzen ditu, 8-10 metro altueradun paretetan, eskailera eta arrabola luzagarri baten laguntzaz. Gehiena plastikarekin margotutakoa bada ere, *spray*-a ere erabiltzen dute bere partaideek. Margotzeko teknikari dagokionean graffiti puristek kritika luzatu diete, margoa erabil-

tzegatik. Euren erantzuna, margo plastikoaren erabilerarekin jatorrietara itzuli direla, hasieran erabiltzen zen margotzeko modura itzuli direla, alegia. Teknika misto hau beharragatik sortu dutela zehazten dute. Bestelako kritikariek ordea kontrako ikuspuntua zabaltzen dute, Mixed Mediak post-graffitiaren hastapenetan ari dela.

Garikoitz Muruak argi dauka eztabaida honen aurrean etiketak jarri baino bakoitzak sentitzen duena esan, eta egiten duena adierazi beharra duela.

Aryz, Grito, Kikx, Poseydon, Rostro eta RGTD arte alor ezberdinetatik datoz -ilustrazioa, diseinu grafikoa, arte ederrak, graffiti...- eta bakoitzak gainera behar ezberdinei erantzuteko margotzen du: buruan duena askatzeko, ikuslearengan eragiteko, mezua zabaltzeko, funtzio komunikatiboa betetzeko... Norbera



definitzeko orduan ere ikuspuntu ezberdinak erabiltzen dituzte: artisaia, teknika ezagutzeko helburua duelako; artista; norberaren gozamenerako aritzen dena eta ez jendearen esker ona jasotzeko... Ñabardura hauen guztien atzean Mixed Mediaren proiektua dago, giza mugimendu bezala ulertu beharrekoa eta ez arte mugimendu gisa.

GKo-n erakusketa osatu ahal izateko prestaketa lana burutu behar izan dute; lanak aukeratu, digitalizatu eta egokitu. Horretaz gainera, beste zenbait lan galeria honentzat propio sortu dituzte. Horrela osatu dute Printshow erakusketa. Mixed Mediak bere lanak lehenengoz salgai jartzeko Tolosako galeria aukeratu du; bertako pareta beltzetan zintzilikaturiko lanak zenbakitua dira. Marrazki hauek serie ezberdinen bitartez salgai daude, argitalpen mugatua, serie bakoitzetik 50-70 kopia.

Mixed Mediaren muina ordea mural erraldoidetan datza. Bertako partaideen egitekoa tamaina handiko paretetan euren lana txertatzea da. Askotan gainera, egunak eta egunak eman ditzakete pareta egoki baten bila; baimenik gabe margotuz, narria-



tutako guneetan euren margoak ezarriz, tokiaren zentzua aldatzea lortuz.

Aryz, Grito, Kikx, Poseydon, Rostro eta RGTD-ren aldarrikapenetako bat kaleak eta bertako paretak libratzea da. Euren lana adierazteko guneak askatzea, alegia. Tolosan zorteko izan eta tamaina erraldoidun pareta prestaturik zuten. Orixe institutuko atzeko pareta margotzeko baimena eskuratu zuten GKO-ko arduradunek. Garikoitz Muruaren esanetan "Mixed Mediako kideak margotzen ikustea plazerra izan da. Oparia izan da herriarentzat". Aurrerantzean tolosar zein bisitarien pareta horrekin gozatu eta eztabaidatzeko aukera izango dute.

Mixed Mediak Tolosara egindako bidaiaren inguruko datu

gehiago eskuratzeko aukera izango da datorren astean, GKO-k esperientziaren inguruko dokumentala aurkezten duenean. Babes ekonomikoaren laguntzaz dokumental bat egiteko aukera izan dute galeriako arduradunek. Internet bidez zabalduko dute Germán Rigol argazkilari ospetsuak filmatutako eta dokumental bihurtutako lana.

Tolosako galeriaren hurrengo ekimena zine munduan kokatuko da, graffitari buruzko dokumental zikloa eskainiko dute apirillean. Ekintza honen bitartez euren nahia *street art*-aren inguruko joera ezberdinak plazaratzea izango da. Bertaratutakoek uler dezaten graffitia *spray*-a baino askoz gehiago dela eta *street art*-ak graffitian ez duela jomuga bakarra.

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak  
(bat erositara beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886-943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259-943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615-943 671 149

URDAIKARIAK  
**Altuna**  
HARAKINAK

Korreo, 39  
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA  
Gipuzkoa

## irakurri entzun Ikusi

### Autopsiarako frogak Koldo Izagirre



Euskarak geografia bat osatzen du, dialekto guztien mugak gainditzen dituena. Non euskaraz, hantxe euskal herria. Baina non da herri esan geniezaiokeen lurra? Hizkuntzak lurra behar du: egitura politiko bat, eskubide propioak. Lurra lantzeko. Hitzunak sor ditzan. Hitzunek leku egin diezaioten.

Herri izatearen frogia eta kontzientzia ematen digu euskarak. Bizi garelako frogia. Gatazkan.

### Groseko Hungariar Kaldereroen Konpartsa Kaldereroak Batzuen artean



19 abesti, kaldereroen festa ezaguna osatzen duten erreperatorioko osagaiak. Raimundo Sarriegi, Juan Antonio Antero, J. J. Santesteban eta Jose Olaizolaren lanen interpretatzaileak: Irungo Hiria Musika Banda, Aita Donostia Koroa, Aita Sierra Koroa eta Groseko Hungariar Kaldereroen Konpartsa.

### Zigortzaileak Arantza Ibarra, Alfonso Arandia



Bullying-aren kontrako super-heroiak. Umeak protagonista direla euskaraz egin den lehen filma. Umeei zuzendutako abenturazko filma honek hainbat ikasleren abenturak kontatzen ditu; ikastetxeko haur gaizto menderatzaile batzuen tratu txarrak jasateaz nazkatuta, hauei eskarmentua emateko talde sekretu bat sortzea erabakiko dute hiru lagunek.

20

# hitzordduak

Martxoaren 4tik 18ra bitarteko

## Dantza

**Amezketako Talaiak.** Martxoaren 6 eta 7an, igande eta astelehenean, Amezketan.

**Abaltzisketako Txantxoak.** Martxoaren 6an, igandean. Abaltzisketan.

## Kontzertua

Borrokan eta Yakuzi. Martxoaren 18an, ostiralean. Tolosako Bonberenean.



## Nazioarteko Eguna

**Emakumeen Nazioarteko Eguna.** Berdintasun arloko ekimenak. Tolosan.

**Emakumeen Nazioarteko Eguna.** Zizurkil. Ekainberri kobetara irteera. Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko irteera. Ekainberri Kobak, ondoren bazkaria Zumaiaiko Marina Berri Jatetxean. Izena emateak Aurrera Plazako Bulegoetan eta Liburutegian,

plazak bete arte eta 28 euro ordainduz. Oinetako erosoak eramatea gomendatzen da.

**Emakumeen Nazioarteko Eguna.** Albizturren, Herriko Etxe Jatetxean afaria. Martxoaren 11n, ostiralean. Aldez aurretik izena eman behar da. Menua: zainzuriak, etxeko frijituak eta urdaiazpikoa, espina-ka hojaldrea ahuntz gaztarekin eta ondo krepea, azpizuna porto saltsarekin eta gari-zainzuriekin edo legatza plantxan piperrada eta puskatutako patatekin eta postreen orgia.

**Emakumeen Nazioarteko Eguna.** Alegia, afaria Hilario Berri tabernan, 21.00tan. Martxoaren 12an, larunbatean. Alegiako Kultur Batzordeak antolatuta. Tikitak salgai Alegiako Kultur Etxean martxoaren 4a bitartean.

## Internet

**Gipuzkoa Encounter.** Martxoaren 11tik 13ra, ostiraletik igandera bitartean. Tolosako Usabal kiroldegian.

## Haurrentzat

**Ipuin Txokoa.** Martxoaren 17an, ostegunean. Tolosako Haur Liburutegian, arratsaldeko 18.00etan.

**Txotxongiloak.** Trularay. Irrintzi Taldea. Martxoaren 17an, ostegunean. 17.30-18.30 bitartean. Txotxongiloak, ipuinak eta musika. CAN, Tolosako Rondilla, 4 kalean.

## Erakusketak

**Jeiki, Jeiki!** Tolosako iñauteriak herritarren irudietan. Martxoaren 18a bitartean. Tolosako Aranburu Jauregian.



**Mixed Media.** Apirilaren 2a bitartean. Printshow. ARYZ · GRITO · KIKX · POSEYDON · ROSTRO · RGTD. GKo Galleryn.  
**Wayang Golek.** Indonesiako txotxongiloen erakusketa. Topic-en

## Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena Hasiera data Ordu Kopurua

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Internet + e-administrazioa	2011/03/10	20
Elikagaiak manipulatzeko Agiria lortzeko ikastaroa	2011/03/15	6
CAD 2D (Autocad hastapena)	2011/03/21	40
Informazioaren segurtasun digitala	2011/03/21	40
Aplikazio informatiko aurreratuak (Word-Excel)	2011/03/21	40
Berokuntza-ACS eta Aire egokiturako energia alternatiboak	2011/03/28	20

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Teléfonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Posta-e: [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com)  
Webgunea: [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com)



Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA  
**ZUEN  
TZART**  
*eskuz esku  
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA  
[ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET](mailto:ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET)  
TEL. 943 650 359



GKo

## Aitzol Euskal Pizkundea

Aitzolen 115. Urteurrena. Martxoaren 18an, ostiralean. Jose Ariztimuño Olaso -Aitzol- Tolosan jaiotako Gorosabel kaleko 12. atarian plaka oroigarria jarriko da. Aitzol euskaltegiak eta euskara erakundeak biltzen dituen Euskaraeneak bultzatuta egun osoan Aitzolen testuen irakurketa egingo da.



## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 4</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 9</b> Morant R. (Zaballarreta, 1) Tolosa	<b>Astelehena, 14</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
<b>Larunbata, 5</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Osteguna, 10</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Astearte, 15</b> Morant R. (Zaballarreta, 1) Tolosa
<b>Igandea, 6</b> Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	<b>Ostirala, 11</b> Olarreaga I. (Korreo kalea, 2) Tolosa	<b>Asteazkena, 16</b> Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
<b>Astelehena, 7</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Larunbata, 12</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	<b>Osteguna, 17</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra
<b>Astearte, 8</b> Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	<b>Igandea, 13</b> Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	<b>Ostirala, 18</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdiak)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 329	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 683 361	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	Urreamendi egoitza
Bidegoian	943 681 134	Larrialdiak, Suhiltzaileak
Medikua	943 681 134	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 683 361	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 683 361	943 674 888
Ikaztegieta	943 683 361	943 651 425
Medikua	943 683 361	943 673 022
Irua	943 683 361	943 675 320
Osasun zentroa	943 690 720	Lizartza
Tolosa	943 690 720	Medikua
Anbulatorioa, Iarriald.	943 650 931	Orendain
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Medikua
		Orexa
		Medikua
		943 682 228

**TINDATEGIA**

Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**ARALAR  
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

# Muxutruk

## Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta txerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoa tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

## Etxebizitza

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

## Salgai

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoak opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Limosin arrazako 6-8 hilabeteko txekor idiskoa erosiko nuke zezenetarako. Kartaduna. 943694736 / 618185337

# Horoskopoa

Martxoaren 4tik 18ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Elkartasuna eta konpromisoa dira egun hauetako hitz gakoak. Baliteke bisitaldiren bat egin behar izatea ospitale edo tankerako tokiren batera, beti ere denbora tarte hori beste bati eskaintzeko asmoz. Buruan duzuna atzeratu egingo da.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Proiektu garrantzitsuren batean murgildurik baldin bazaude horretan buru-belarri sartuko zara. Adiskidetasunak, ilusioak, proiektuek eta itxaropenek zure atentzia eskuratuko dute.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Anbizioa, irudia, gizartearen eragina, helburuak, bokazioa... buruan bueltaka dituzun elementuak dira. Gertatu ohi da esperotako emaitzarik ez jasotzea. Egun hauetan helburu horien alde borrokatuko duzu.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Baliteke egun hauetan zure buruan antolakuntza eta ordena kontzeptuen esanahi berezirik ez izatea. Bizitzari ateak ireki eta inoiz baino intuitiboago jokatuko duzu. Gertakizunak ikuspuntu global batetik aztertuko dituzu.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Egun hauetan desira eta senik oinarritutako agerian utziko dituzu. Besteekiko menpekotasuna ez duzu oraingoz gailendu; gertuko pertsonak, bikotea eta sendia bereziki, beti ondoan behar dituzu.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Bi aste hauetan erlazioek eta kolaboratzaileekin, lankideekin eta bikotearekin dituzun harremanek garrantzia eskuratuko dute. Erlazio baten hasieran baldin bazaude, inoiz baino harberago egongo zara. Berarekin egoteko desiraz egongo zara.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Lanean aldaketak nabarituko dituzu, baliteke lan karga handiagotzea. Osasun arloari erreparatu egin beharko zenioke, azken aldia ez zara gehiegi arduratu eta.



## scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Beti ez duzu aukerarik izaten barruan duzuna nahi bezala adierazteko, baina egun hauetan indartsu egongo zara eta zure ingurukoiei ere horrela jakinaraziko diezu. Zure gaitasuna agerian geratuko da.



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Egun hauetako gaien artean etxea, familia, sortetria, lotura sentimentalak eta bizitza pribatua aurkituko dituzu. Gertakizunen batek etxea edota barne sentimenduak airean utziko ditu.



## capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Lekualdaketak, komunikazioa, ikasketak, idatziak eta anai-arrebak egun hauetako giltza izango dira. Normalean baino aktiboago zaude, ikasteko gogoaz, gauza berriak ezagutzeko desiraz.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Zure izaeraren euskarriak balantzaka utziko dituen gertaera erakarri duzu eta horrek zure autoestimuan eragina izango du. Gauzen benetako garrantziari erreparatzeko unea heldu zaizu.



## piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Atzeratu eta alboratutakoa ate joka duzu. Jarduera berri horretan ekiteko garaia heldu zaizu. Seguru sentitzen duzu zure burua eta hori dela eta ez da garai txarra izango. Helburu berriak ezartzeko unea.



## EXPRES ESTUDIOA

- 3 argazki akordeoi eran 15x15
- Anpliazioa 30x40

69€

## ESTUDIO BASIKOA

- 12 orriko albuma
- 10 oroigarri diptiko
- Anpliazioa 30x40

169€



www.ikatz.es



# Jaunartzeak

FOTO IKATZ ORDIZIA - joxe miguel barandiaran 1 - ORDIZIA

tel. 943 027 435

# SUPER EKO

SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua  
Erosketak etxera  
eramateko zerbitzua



Zumalakarregi, 4  
943 65 09 01  
Tolosa



# BATU GAITEZEN

GIPUZKOAK AURRERA EGITEKO



www.gipuzko.com

# HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



**40** URTE | eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

**2,13** Km<sup>2</sup>  
hartzen ditu guztira mausoleoaren azalerak

**700.000** LANGILE  
aritu ziren hori eraikitzen

**7.000** IRUDI  
lurperatu zituzten enperadorearen ondoan, benetakoa tamaina dute eta terrakotaz eginak dira

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,  
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

25 años  
en TOLOSA

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com) 24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

